



"Plateruenak kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa izan behar du"

Herritar talde batek Plateruena kudeatzeko proposamen berria aurkeztu du: 'Plateruena: Lantegi eta erakusleho'. Sorkuntzaz, parte hartzeaz, euskaraz eta Durangoko ekosistema kulturalaz jardun dute. • 18



Ilusioz beteriko erronka

Amorebieta futbol klubak atzo ekin zion aurtengo denboraldiari. Sei jokalar berrigaz indartu dute iazko blokea. Eurretari bi eskualdekoak dira: Oier Luengo zornotzarra eta Lander Olaetxea abadiñarra. • 20



Otxandio
2021

"Aurraunketa talde lana da, dena da denona"

Kirola | Ander Sarriugarte durangarrak estropaden munduan aurkitu du bere kirol pasioa. Urte bi daramatza Isuntza taldean. Aurten batelen eta trainerillen denboraldiak egin ditu Lekeitioko taldeagaz. Datozen hileetan traineruetan lehiatzen ibiliko da Mutrikuko Arraun Taldeagaz. • 2-3





ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

**UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



**Ander Sarriugarte
Garcia**

Arraunlaria

DURANGO | 2003

Sentsazio onekin amaitu genuen estropada. Oraingoz nahikoa pozik gaude egindakoagaz. Banderak hortxe daude, hurbil, igartzen dugu, baina estropadak irabazi ditzaketen talde asko daude. Ahalik eta ondoen ibili gura dugu eta baten bat irabazi ahal bada...

Mutrikuko taldekiderik ezagutzen zenuen aurretik?

Lau jubenil, sei bat senior eta Jacinto entrenatzailea Isuntzatik gatoz. Horiek denak ezagunak dira. Gainerakoak ez nituen ezagutzen, baina denbora gutxian oso hartu-eman ona egin dugu.

Geratzea ez da aukera bat arraunketan, geratuko ez diren beste hamabi taldekide dituzulako alboan

“Arraunketa probatu eta bigarren egunera banekien hauxe zela nire kirola”

Ander Sarriugarte Lekeitioko Isuntza arraun taldeko arraunlaria da; orain Mutrikugaz dabil traineruen denboraldian

ARRAUNKETA • JOSEBA DERTEANO

Mendira baino gehiago, itsasora begira bizi da Ander Sarriugarte. Isuntza taldeko arraunlaria da. Aurtan, batelen eta trainerillen denboraldiak egin ditu Lekeitioko taldean. Orain, traineruetan dabil Mutrikuko arraunketa taldean, Isuntzak utzita. Makina bat bider galdetu ei diote lehorrekoa izanda zelan heldu zen arraun mundura. Bada, beste behin ere erantzun beharko dio galderari.

Zelan heldu da mendiz inguratuta bizi den durangarra traineruen mundura?

Mundu guztiak egiten dit galdera bera. Telebistan betidanik ikusi izan ditut estropadak, baina hasieran urrun zegoen zerbait lez ikusten nuen. Gerora, probatzeko gogoia sartu zitzaidan. “Honek kirol polita behar du, ba!”, pentsatzen nuen. Gurasoekin komentatu eta Isuntzako zuzendaritzako ezagun batzuegana jo genuen eta aukera eskaini zidaten. Ez nuen fede handirik, probatu egin gura nuen, besterik barik. Baina arraunketa probatu eta bigarren egunera banekien hauxe zela nire kirola. Urte bi joan dira harrezkero.

Aurretik beste kirol batzuk egindakoa zara?

Triatloiak egiten nituen, baina nekatu egin ninduen. Beste zerbait probatu gura nuen.

Arraunketa probatu zenuen lehenengo aldi hartako zer oroitzapen duzu?

Hasiera-hasieran fosoa probatu nuen. Fosoa lehorrean traineru barruko lana simulatzen duen makina bat da, ur eta guzti. Handik aste bira eman nuen itsasorako saltoa, traineruan. Nire muskuluek eta nire buruak gauza desberdinak esaten zituzten. Hasi eta bigarren paladarako abdominalak birrinduta nituen. Baina olatu bat hartzerakoan barruan sentitzen nuena... hasieratik berezia izan zen.

Lehorreko marinel gehiago dituzu inguruan?

Bai. Sasoi batean Durangaldeko emakume bat ibili zen Isuntzako talde nagusian. Lehenago ere aritu dira beste batzuk. Hemen, Mutrikun, Deban bizi den beste durangar bat dabil: Mikel Anasagasti. Ez nekien nongoa zen, baina bere euskalkia ezaguna egiten zitzaidan eta galdetu nionenan jakin nuen.

Zelan joan da denboraldia Isuntzagaz?

Bateletan txarto ez, baina espero baino apur bat txartoago. Neguan

asko entrenatu eta gero hobeto ibiltzea espero genuen. Trainerillekin arantza hori kendu genuen. Hasieratik oso ondo ibili ginen: Ligako, Bizkaiko eta Euskadiko txapeldun. Espainiakoan, ostera, lehen jardunaldian irabazi eta bigarrenean hirugarren. Inoiz ezer irabazi barik eta bat-batean dena irabazten geunden. Ezin genuen sinistu. Entrenamenduetan, arraunkeran, gure entrentzaileak esaten zigun gauzetan... bagenekien ondo ibili gintezkeela, baina, hala ere, sorpresa izan zen.

Gustura geratu zara zuk emandako kirol mailagaz?

Bai, oso gustura. Asko ikasi dut. Baina kirol honetan ez zara konturatzen zure ekarpen pertsonalaz. Hobeto esanda, estropada amaieran konturatzen zara, ingurura begiratu eta taldekideak arnasari buelta eman ezinda ikusten dituzunean eta norbera ere berdin dagoenean. Esan gura dut talde lana dela, dena da denona. Jacinto Salinas entrenatzaileak beti esaten digu arraunean sintoma txarra dela arraunlari bat besteen gainetik destakatzea. Nabarmentzea txarra den kirol gutxi egongo da, eta arraunketa da euretariko bat.

Zelan doa denboraldia Mutrikugaz ARC-ren bigarren mailan?

Orain hiru asteburu hasi ginen. Lehenengo estropadan, San Pedron, seigarren geratu ginen; orain asteburu bi, Elantxoben, bigarren. Eta joan zen asteburuan Mutrikun izan genuen estropada, eta bosgarren sailkatu ginen, hirugarren postutik oso gertu.



Entrenamendua hasi aurretik, ergometroagaz beroketa saioa egiten, Mutrikun.

18 urteagaz, mundu honetan nahiko hasiberria zara. Zertan duzu hobetu beharra?

Hazteari utzi diot orain [1,90 metro neurtzen du] eta gorputz apur bat hartzea falta zait. Baina fisikoa lantzea baino gehiago ofizioa ikastea falta zait.

Arraunlari luzea izateak laguntzen du palada luzeagoak ematen?

Arraunlari luzeak beti datoz ondo, traineru erdian batez ere. Egonkortasuna ematen dio taldeari. Baina txikiak eta arinak ere garrantzitsuak dira.

Zein da zure kokalekua traineruan?

Atzeko partean joaten naiz sarritan, kontrapopan. Edo hor eta erdialdean eta istriborrean,



Isuntza taldeagaz Euskadiko txapelketa irabazi du trainerilletan.

eskumako aldean. Ez arrazoi berezi batengaitik. Lehenengo egunean hantxe hasi nintzen eta horrela jarraitzen dut. **Postuak zeresan handia du erantzukizunaren aldetik?** Erantzukizun gehiagorik ez dago. Hori bai, postu bakoitzak bere funtzioa du. **Eta zeintzuk dira postuen funtzioak?** Popako arraunlariak apur bat erritmoa markatzen du eta taldeari patxada bat ematen dio. Erdikoen funtzioa egurra ematea da eta aurrekoena berdin. **Mundu guztiak ikusten ditu arraunlarien irudiak estropadak amaitzen**

Bat-batean dena irabazten geunden; bagenekien ondo ibili gintezkeela, baina, hala ere, sorpresa izan zen

direnean. Zelan ikasten da sufritzen? Sufrituz ikasten da sufritzen, ez dago besterik. Beste kirol batean, txarto bazaude, geratu egin zaitzake, baina arraunean hori ez da aukera bat, geratuko ez diren beste hamabi taldekide dituzulako alboan. Zisko eginda egonda ere, jarraitu egin behar duzu.

Eta patroiak erritmoa bizitzeko eskatzen badu eta gehiago eman ezin baduzu? Patroiak beti eskatzen du gehiago, normala den moduan. “Zu ez zabiltza hor, arraunean!” eta antzerako pentsamenduak etortzen zaizkit, baina, azkenean, beti eman daiteke apur bat gehiago. **Itsaso biziagaz arraun egitea gus-tatzen zaizu ala gurago duzu itsaso barea?** Isuntzako arraunlariok badugu marinela fama hori. Itsaso eskasagaz lortzen ditugu emaitzarik onenak. Itsaso baretan gustura-

go joaten da arraunlaria, baina Isuntzan ondo etortzen zaigu itsaso bizia. Baldintza horietan indarra baino inportanteagoa da nabigatzen jakitea, olatuak hartzen eta antzerako kontuak. Askoz ere egoera konplexuagoi egin behar zaie aurre. Baina, normalean, ondo dabilen arraunlaria ondo moldatuko da baldintza denetan. **Elikaduraren aldetik kirol zorrotza da?** Batzuen kasuan bai, pisua erraz irabazten dutelako, baina ez da nire kasua. Niri pisua hartzea kostatzen zait. Beraz, asko jan eta kito.

laz, konfinamenduan, zelan moldatu zinen sasoiari eusteko? Ezetz ematen du, baina gauzak egin daitezke sasoiari eusteko. Ergometro bat eraman nuen etxera eta hari egurra eman nion! Bizikleta estatikoan ere ibili nintzen, eta entrenatzaileak bidalitako beste zenbait ariketa ere egin nuen. Azkenean, moldatzen zara. **Itsasorako itzulera gogorra egin zitzaizun?** Oso gogorra. Traineruan sartu eta bat-batean ahaztuta arraunean zelan egiten zen! Denoi gertatu zitzaizgun. Ze arraunketa ez da fisikoa bakarrik, oso teknikoa da. Denok batera aritu behar dugu arraunean. **Mendia guztiz ordezkatu duzu itsasoagaitik?** Ez naiz oso mendizalea. Noizean behin lagunekin joatea gustatzen zait. Baina arraunean nabilenetik denbora gutxiago dut. Deskantsu egunetan gurago dut atseden hartu. **Historikoki talde gipuzkoarrek agindu dute arraunean, baina ematen du azken urteetan joera aldatu egin dela: Kaiku, Urbailbai, Santurtzi... Bizkaiko taldeen loraldi bat bizi dugu?** Arraunketa geroago eta ezagunagoa egiten dabil toki askotan. Gipuzkoan tradizio handia du oraindino, baina beste leku askotan ere indarra hartzen dabil. Loraldia? Tira, dirua ere asko mugitu da Bizkaian, eta horrek lagundu du, ze arraunlariei erreparatuz gero, asko Gipuzkoatik etorritakoak dira. Baina, bai, Bizkaian ere geroago eta gehiago dabilta arraunean. Begiratu niri, lehorrekoak ere animatzen gara!



Mutrikuko taldeagaz itsasoan, joan zen asteko entrenamendu batean.

Baserritarrek begi onez hartu dituzte produktuen egunak merkatu plazan

Joan zen zapatuan produktuen egunen lehenengo jardunaldia egin zuten Durangoko baserritarren merkatuan. Pozik dauden arren, ekoizleek pauso gehiago ematea gura dute



Baserritarren merkatu plaza, joan zen zapatuan.


DURANGO • EKAITZ HERRERA

Pizgarritxo bat dira, baserritarren merkatuari bultzadaxto bat emateko modua. Eta lehenengoa gazpatxo eta salmorejo artean egin dute. Durangoko baserritarren merkatuak produktuen egunak inauguratu zituen joan zen zapa-

tuan. Bertara joandako herritarrek Andaluziako zopa freskoak probatzeko aukera izan zuten, etxerako erosketak merkatuan bertan egin izanaren truke. Lehenengo jardunaldi hau udalak, baserritarrek eta Saltsan catering etxeak antolatu dute elkarlanean, eta etorriko dira

gehiago. Ekoizleen lana ezagutze-ri loturiko egunak izango direlako aurrerantzean, eta baita produktuei eskainiriko beste egun batzuk ere. Hurrengoa, irailaren 4an. Egun horretan, erosketak merkatuan egiten dituztenek pipermina edo Gernikako piperrak probatu ahalko dituzte.

Gema Agirre abadiñarrak aste-bururo jotzen du Durangoko merkatua, baserriko produktuak saltzera. Ondo ikusten ditu horrelako egitasmoak. "Jendeak sorpresaz hartu zuen egitasmoa, eta batzuk animatu ziren salmorejoa probatzera. Horrelako gauzak ondo daude. Zerbait egin behar da, apurka-apurka bada ere. Abiapuntu bat dira", dio Agirrek. Oromiñoko Sabin Bilbao ekoizlea ere bat dator interpretazio horregaz. "Horrelakoak ondo daudela deritzot. Dena dela, informazio gehiago behar da. Jende askok ez zuen egitasmoaren berririk. Ni salmorejoa sekula ere probatu bakoia nintzen eta gustatu zitzaidan", azaldu du Bilbao.



Itogin arrastoak, Ezkurdiko frontoian.

Ezkurdiko frontoia berrituko dute 1,2 milioi eurogaz

Urteetako itogin arazoei konponbidea emateko asmoz, Durangoko Udalak frontoiaren sabaia aldatuko du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi du Ezkurdiko frontoia eraberritzeko prozesua martxan ipini duela. Lanak udazkenean aterako ditu lizitaziora. Batetik, urte luzez sa-baian egoniko arazoak konpondu gura dituzte; itoginak, gehienbat. Bestetik, irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetu gura dituzte. Lanekin, udalak herriko "ikur garrantzitsu" bat berres-

kuratu gura du, "hainbeste urtean erreferentzia" izandako eta "utzikeriagaitik hiltzen utzitako" sinbologia.

Obrak hiru diru partida nagusigaz egingo dituzte; guztira, 1.271.800 euroko aurrekontuagaz. Sabaia aldatzeak 421.705 eurotik gorako aurrekontua izango du. Eraikinak kalte ugari ditu "hezetasunengaitik eta itoginen-gaitik".

Matrikula irakurgailuak ipiniko dituzte Durangoko Alde Zaharreko sartu-irtenetarako

Ibilgailuen mugikortasuna kontrolatzeko sistema berria irailetik aurrera ipiniko dute martxan. Barandiaran eta Sanagustinalde kaleak oinezkoen gune izango dira jaiegunetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak ibilgailuen sartu-irtenetarako sistema berria ipiniko du irailetik aurrera Durangoko Alde Zaharrean. Horri buruzko xehetasunak emateko, bilera egin du asteon Alde Zaharreko, Sanagustinalde kaleko eta Barandiaran kaleko bizilagunekin. San Agustin kulturgunean elkartu dira.

Udalak aurreratu duenez, sistema berriak berrikuntza nagusi bi izango ditu. Batetik, matrikula ira-

kurgailua ipiniko du Alde Zaharreko ibilgailuen sartu-irtenetarako. Bestetik, Barandiaran eta Sanagustinalde kaleak oinezkoentzako gune izendatuko ditu asteburuetan eta jaiegunetan. Erabaki horregaz, kale biak emisio baxuko gunean txertatuko ditu. "Ezer baino lehenago, egingo diren aldaketen berri eman gura diegu bizilagunei, sortu daitezkeen zalantzei zuzenean erantzun ahal izateko. Eurekin komunikazio zuzena mantendu

gura dugu, sistema berrirako transizioa hobea izan dadin", azaldu dute Aritz Bravo eta Jorge Varela zinegotziek.

Udalaren esanetan, matrikulak irakurtzeko sistema berriak "urtean 50.000 euro inguru gastatzea saihestuko du". Bestalde, Sanagustinalde eta Barandiaran kaleak asteburuetan zein jaiegunetan libre uzteak oinezkoentzat "25.000 metro koadro berreskuratzea" ekarriko duela gaineratu dute.



Ibilgailuen trafikoa Sanagustinalde kalean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 9a
19. urtea - 857. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Mobilizaziora deitu dute Durangoko eta Muxikako lan istripuetan hildako gazte bien heriotzak salatzeke

Baso lanetan zebilen Durangoko gazte bat lan istripuan hil zen eguaztenean, Muxikan. Bestalde, joan zen barikuan gazte bat hil zen Durangoko obra batean lanean zebilela. Sindikatu eta eragileek elkarretaratzeak egin dituzte gertaturikoa salatzeke

protesta bat egin zuten Andra Marian.

Muxikako istripua

Eguaztenean, Durangoko 27 urteko gazte bat lan istripuan hil zen Muxikan, baso lanetan zebilela. Gertaturikoa ikertzen dabilta.

Eguenerako, mobilizaziora deitu zuten Durangon. Azken egunetan gertaturiko lan istripu bietan hildako gazte bien heriotza salatzeke, deialdiak izan ziren. Herritar talde batek kontzentrazioa deitu zuen Andra Marian, eta Durangaldeko Kontseilu Sozialistak elkarretartzera deitu zuen, Santa Anan.

DURANGO • J.D. / J.G.

Durangoko lan istripua Ertzaintzaren komisaria ondoko obra batean gertatu zen, joan zen barikuan. 22 urteko behargin portugaldar bat bertan eraikitzen dabilzan etxebizitza bloke bateko laugarren pisutik jausi zen. Martitzenean, sindikatuak kontzen-

tratu egin ziren langilea hil zen obraren aurrean, heriotza salatu eta segurtasun neurri gehiago eskatzeko. CCOO sindikatuak deituta, kontzentrazioa egin zuten. ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak ere egin zuten elkarretaratzea. Arratsaldean, herritar talde batek deituta, beste



Gehiengo sindikalak Durangoko istripua gertatu zen eraikinaren aurrean egindako mobilizazioa.



Goian, CCOOren elkarretaratzea, astelehenean. Behean, herritar batzuek antolatutakoa.

Martxan dira Tantorta urbanizatzeko eta Eroski berria eraikitzeke obrak

Lanekin, auzoko sarbidea hobetu, biribilgune bat ipini eta aparkaleku berriak egingo dituzte, besteak beste

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Orain arteko izapide guztiak gaintitu eta URA Agentziaren oniritzia jaso ondoren, Tantorta inguruko urbanizazio lanak martxan ipini dituzte. Urbanizazio lanak Eroskiren eraikin berria egiteko lanekin batera joango dira, modu paraleloan. Kontua da Eroski Kooperatibak 1.500 metro koadroko salmenta-aretoko supermerkatua ipiniko duela bertan, gutxi gorabehera 1.325.000 euroko aurrekontuagaz, eta sei hilabeteko egikaritze-epeagaz. Eta lan horiekin batera, Tantorta auzoa berronertzeko lanak egingo dituzte. Besteak beste, Boroatik herrigunerako sarrera hobetu, auzoan aparkaleku berriak sortu, argiztapen berria duten arbola-dun-espaloia egin, eta biribilgune bat eta autobus geraldak berri bat ipiniko dituzte.

Supermerkatu berriak Zornotzako "merkataritza eskaintza zabaltzeko" gura du. Lanek 6 milioi euroko inbertsioa izango dute. Apiril-maiatz aldera zabalduko dute.

Larreako Eskolaurreko eraikina berregokitzen hasi dira

Udalak 160.000 euro ipini ditu hobekuntzak egiteko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ikasleak opor sasoian murgilduta daudela aprobetxatuta, Zornotzako Udalak berregokitzen ari den Larreako Eskolaurreko eraikinean. Hezkuntza Bereziko ikasgelak birkokatu eta

handitu, gela bakoitzean berogailu-erradiadore bana ipini, leihoak bitan zatitu, eta armairuen ordez eskegitokiak eta tiraderak ipiniko dituzte. Horrez gain, office-gela bat ipini eta komunak egokitu dituzte.



San Pedro kalerako sarbidea hobetuko dute.



Larrea Eskola Luis Urrengoetxea kalean dago.



LA RIOJA

ERRESERBA EGIN, BERRIZ BIZI IZATEKO

Begirada konplizea eta zapore zintzoen intentsitatea, istorioz, argiz eta berezitasunez beteta

Oraindik ere hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horiek.

#RESERVARIOJA

www.lariojaturismo.com

Informazio gehiago



Otxandioko Oihandi abesbatza zuzendari profesional berri baten bila dabil

Urte askoren ondoren, aurreko zuzendariak kargua utzi du eta abesbatzaren beharrezane aurre egingo dien pertsona bat behar dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Oihandi abesbatza errelebo bila dabil arlo batean baino gehiagotan. Behinena, zuzendari berri bat bilatzea da. Aurrekoak, 12 urtean zuzendari izaniko Leire Amenabarrek, kargua utzi du, nahiz eta koruko partaide izaten jarraituko duen, eta abesbatzaren gidaritzara eramango duen norbait behar dute. Arloko ikasketak dituen profesional baten bila dabilta.

laz atzeratu egin behar izan zuten 50. urteurreneko ospakizuna; aurten egiteko asmoa dute

Abesbatzari bultzada emango dion norbait gura dute. "Orain arteko zuzendariak boluntario aritu dira, baina barneratuta dugu profesionala den norbait hartuz gero soldata bat ordainduta izango dela", azaldu du Juan Luis

Gonzalez de Langarika abesbatzako presidenteak. Interesatuek oihandi.abesbatza@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Aurrera begirako beste erronka bat korurako kide berriak bilatzea da. Gaur egun 40 bat

lagun dabilta; urterik urtera beherantz egiten dabilen kopurua da eta kosta egiten zaie erreleboa bilatzea eta jende gaztea batzea.

Oihandi Otxandion tradizio handia duen abesbatza da.

1970ean sortu zuten eta 1988tik Bizkaiko Abesbatzen Elkarte partaide da. Iaz 50 urte egin ziren sortu zenetik. Ezin izan zuten urteurrena ospatu, baina aurten edo datorren urtean ospatzen saiatuko dira.



Oihandi abesbatzak 38. Bizkaiko Abesbatzen Astea ekimenean eskainitako kontzertuko irudia.

Zabalik dago turistentzako informazio puntua Otxandioko plazan

OTXANDIO • J.D.

Bigarren urtez jarraian, turistei bideraturiko informazio puntu bat ipini dute Otxandioko plazan. Uztail hasieran zabaldu zuten eta hiru hilean egongo da zabalik, iraila amaitu arte. Iazko moduan, Mikel Sanchez otxandiarra dago bulegoaren kargu.

Uztailaren eta abuztuaren arteko bost egunetan zabalduko dute. Eguazten eta eguenean goizean bisitatu ahal da, 11:00etatik 13:00etara; barikue-

Uztailaren eta abuztuaren arteko bost egunetan zabalduko dute; irailean, ostera, asteburuetan

tan 17:30etik 20:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 14:00etara. Irailean asteburuetan zabalduko dute, 10:00etatik 14:00etara. Helbide elektroniko honetan ere eskuratu daiteke informazioa: turismoa.otxandio@gmail.com.

Mugak gaintzeari buruzko film bat eskainiko dute gaur Mañariko plazan

MAÑARIA • J.D.

Udako kultur programazioaren barruan, *Un sueño imposible* izeneko filma eskainiko dute Mañariko plazan gaur, 22:00etan. 2009an estreinatu zen filma eta gazte amerikar beltz baten bizipenak kontatzen ditu, pobreziatik eta bizimodu gogorretik irten eta futbol amerikarreko izar bihurtu artekoak. Filma benetako istorio batean oinarritu dago.

Olatz Salvador musikaria Mañarira etorriko da kontzertua eskaintzera

Kultur egitarauko hurrengo ekitaldia uztailaren 23an izango da. Olatz Salvador musikaria Mañarira etorriko da kontzertua eskaintzera. Emanaldia 18:30ean hasiko da. Sarrerak uztailaren 12tik 16ra bitartean hartu beharko dira.

Mallabian izena eman daiteke udaleku ibiltarietarako

Satxibu aisialdi taldeak Mallabitik Gernikarako ibilbidea prestatu du kostaldetik egiteko uztailaren 22tik 28rako

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Satxibu aisialdi taldeak udaleku ibiltariak antolatu ditu DBH1 mailatik eta Batxillergoko bigarren mailara arteko gazteen-tzat. Uztailaren 22tik 28ra egiteko, Mallabitik Gernikarainoko ibilbidea prestatu dute, kostaldetik. Izen-ematea hasita dago; uztai-

laren 14a izango da azken eguna apuntatzeko, eta Mallabiko liburutegian egin daiteke inskripzioa. Satxibuko kideek azaldu dutenez, COVIDa dela-eta Gernikarainoko ibilbidea bertan behera utzi behar izanez gero, horietan egunetan Mallabian zehar ibiliko dira, auzorik auzo.



Satxibuk antolatutako udaleku ibiltari bateko irudia. SATXIBU

Izurtzako plazako jarleku gainetan oholak ipini dituzte

Plazaren alde batean luzetara dauden jarlekuak erabiltzaileentzat erosoagoak izatea da helburua

IZURTZA • J.D.

Uda giroan, Izurtzako plaza herritarrentzako bilgune bihurtzen da, taberna, frontoia eta umeentzako jolaslekua hantxe daude eta. Gune hori herritarrentzat atseginagoa izan dadin, udalak jarlekuak hobetu ditu. Plazaren alde batean luzetara dauden jar-

lekuak harrizkoak dira, baita gaina ere. Orain, harri horren gainean oholak ipini dituzte jarleku guztietan. Aldaketa honek, jarlekuak garaia goi eta herritarrentzat atseginagoak izatea bilatu dute, udal arduradunen esanetan.



Plazako jarlekuetan oholak ipinita.



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetaldea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





Elorrioko anbulatorioko argazkia.

Udalak dioenez, datozen hile bietan asteen birritan egongo da pediatria Elorrion

Gobernu taldeak ohar bidez azaldu duenez, kezkatuta dago herriko pediatria zerbitzuagaz

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorrioko Udaleko gobernu taldeak prentsa ohar bidez azaldu duenez, kezkatuta daude herriko pediatria zerbitzuaren egungo egoeragaz eta, orokorrean, lehen mailako arretagaz. "Egiturari eta antolamenduari dagokienez, Osakidetza lehen mailako arreta zerbitzuak gabezia handiak ditu, profesionalik eza eta arreta-ordutegi falta, besteak beste", azaldu dute gobernu taldeko kideek.

Horrez gainera, gaineratu dute zortzi hilabete baino gehiago direla postua bete barik dagoela,

baja baten ondorioz. "Iturri es-traofizialen arabera", datozen hile bietan asteen egun bitan baino ez dute pediatriako arreta eskainiko.

Osakidetza "osasun zerbitzuaren kalitatea" bermatu dezala eskatu du Elorrioko Udalak

"Elorrion zortzi hilabete daramatzagu pediatria postua bete barik. Orain arte, aldi baterako hainbat

profesionalek bete dute zerbitzu hori. Orain, jakinarazi digutenez, asteen egun bitan emango dute zerbitzua. Benetan larria den errealitate bati buruz gabiltza", jarraitu dute gobernu taldekoek.

Era berean, Osakidetza "osasun zerbitzuaren kalitatea" bermatu dezala eskatu du Elorrioko Udalak. Oharrean diotenez, pediatriako zerbitzuari eta lehen mailako arretako gainerako zerbitzuei behin betiko soluzioa emateko eskatzen diote Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, hutsik dauden lanpostuak betez.

Industrializazio garaiko argazkiak batu gura dituzte Elorrion

Argazkiak uda osoan zehar Turismo Bulegoan eta Iturri kultur etxean entregatu ahal izango dira



Elorrioko plaza.

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Elorrioko Udalak prentsa ohar batean azaldu du herritarren laguntza behar duela industrializazioaren garaian bizi izaniko eraldaketari buruzko ikerlan bat egiteko. Elorriok garai horretan bizi izan zuen aldaketa islatzen duten argazkiak aldi baterako udalari uztea da asmoa. "Izan ere, 1950etik aurrera, urte gutxiren buruan biztanleria bikoiztu egin zen, hainbat lekutako pertsona eta familiak heldu zirelako herri bizi proiektu berri bati ekiteko", esan dute.

Argazkiak uda osoan zehar Turismo Bulegoan eta Iturri kul-

tur etxean entregatu ahal izango dira. "Edozein istorio txiki edo handi sartzen da gure proiektuan, denon artean sortzen dugulako

"Edozein istorio sartzen da gure proiektuan, denon artean sortzen dugulako ondarea"

egunero Elorrioko ondarea. Zure argazkiak ekarrita, gure udalerriko memoria kolektiboa eraikitzen lagunduko duzu", adierazi du Alazne Mendizabal zinegotziak.

Atxondon sinadurak batzen dabilta jubilatuen taberna zabaltzeko

Anbotoko Dama Nagusien Elkartekoek taberna eta dendetan utzi dituzte sinatzeko orriak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Anbotoko Dama Nagusien Elkarteko kideak sinadurak batzen dabilta jubilatuen taberna berriro ere zabaltzeko. "Udalak prentsan jakinarazi zuen nagusien elkartearen esku uzten zuela lokalaren kudeaketa, baina guk ez dugu gestionatu gura. Guk inork kudeatuta egotea gura dugu, orain arteko moduan", azaldu dute nagusien elkarte kideek.

Udaletxera joan eta gero, sinadura bilketa bat hasi dute. Herriko taberna eta dendetan utzi dituzte sinatzeko orriak. "Jubilatuentzat taberna bat gura dugu, kafe bat hartu eta kartetan egiteko leku bat", esan dute.



Atxondoko jubilatuen taberna.

Herriko sortzaileen lanak kontratatuko dituzte Berrizen

Herriko kultur proiektuak babestea da Berrizko kultura arloak martxan ipinitako proiektuaren asmoa

BERRIZ • J.G.

Berrizko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi du herriko sortzaileen kultur proiektuen kontratazioa bultzatuko duela. Kultur jarduera sustatzeko asmoz, Berrizko kultura arloak proiektu berri bat bultzatu du kultur proiektuak kontratatzeke, eta, horrela, pandemiaren ondorioz gehien sufritu duen sektoreetarik bati laguntzeko.

Berrizko Udaletik azaldu dutenez, programa berri hau kulturaren sektoreko profesionalei eta musikaren, dantzaren, pinturaren, antzerkiaren edo arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen arloko sortzaileei zuzenduta dago. Bestalde, Berrizen erroldatuta egotea ezinbestekoa dela jakinarazi dute prentsa oharrean.

Behin herriko sortzaileek proiektua aurkeztuta, udalean proiektu horien balorazioa egingo dute eta, horren ostean, kontratazioa martxan ipiniko dute.

Interesa dutenek irailaren 30era arte izango dute auke-

Sortzaileek proiektua aurkeztuta, proiektuak baloratu eta kontratazioa martxan jarriko da

ra euren proiektuak aurkezteko. Horrez gainera, informazio gehiago gura dutenek 94 682 78 60 telefono zenbakira deitu edo kultura@berriz.eus helbidera idatzi dezakete.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apiril amaieran talde berri bat loratu zen Abadiñon. Herrian euren lekua topatzen ez zutela ikusita, herriko hainbat neska gaztek talde feminista bat sortzeari ekin zioten. "Martxoaren 8aren bueltan, Abadiñon beharrian bat zegoela ikusi genuen, emakume gazteak saretzeko eta feminismoa herriko hainbat esparrutara hedatzeko. Orduan, herriko hainbat neska gazte batu ginen eta talde bat sortzea erabaki

"Martxoaren 8aren bueltan beharrian bat ikusi zen emakume gazteak saretzeko"

genuen", azaldu du Irati Bazeta Izpilikuak taldeko kideak. "Ikusi genuen martxoak 8aren moduko egun batean ez zegoela babes espaziorik emakumeontzat. Eta hori aldatu beharra zegoela pentsatu genuen", jarraitu du Iraide Gulinek.

"Izpilikuaken ateak zabalik daude eta taldean ongi etorriak izango zarete"

Horri irtenbide bat aurkitu guran, Abadiñoko hainbat neska gazte batzen hasi eta Izpilikuak taldea sortzeari ekin zioten.

Apiril amaieran, San Prudentzioen bueltan osatu zen taldea. Izpilikuaken helburua Abadiñoko

Izpilikuak, Abadiñoko emakume gazteak saretu eta babesgune izan gura duen talde feminista

Herrian ikusiriko beharrian batetik, Abadiñoko hainbat neska gaztek Izpilikuak talde feminista sortu zuten apiril amaieran



Izpilikuak taldeko kideak.

etorriak izango zarete", azaldu du Maitane Garcia taldeko kideak.

Pozik harreragaz

Izpilikuakeko kideak "oso pozik" daude taldeak herrian izandako harreragaz. "Taldea aurkezteko, otzara bat zozkatu genuen, eta harrera bikaina izan zuen. Gainera, jende askok galdetu zigun ea zertan gabiltzan", jarraitu du Oihane Gulinek.

Izpilikuak taldeko kideak "pozarren" daude taldeak herrian izandako harreragaz

Ekainak 28

Historian lehenengoz, ekainaren 28an, Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunean, Abadiñoko kaleetan LGTB askatasuna aldarrikatzera irten zuten, Izpilikuak talde feministak eta herriko zeinbat eragilek deituta. Izpilikuakeko kideak "pozarren" daude herritarrek izandako erantzunagaz, eta oso eskertuta Abadiñoko elkarte eta eragileekin. "Ederra izan da. Aliantzak sortuz kaleetan harro jarraituko dugu", amaitu dute.

emakume gazteak saretu, emakumeontzat babesgune bat izan eta herriko arlo askotan ikuspegi feminista txertatzeko sareak sortzea da.

Harrezkero, hainbat dira eguazteneko-eguazteneko batzen diren emakumeak. "Taldea anitza da eta Abadiñoko emakume gazte

ororentzat dago zabalik. Herriko neska guztiak gonbidatuta daude taldearen parte izatera. Izpilikuaken ateak zabalik daude, eta ongi

Solozabalgo eta Abadeortuko bidegorria egokitzen hasi dira Abadiñon

Lanak ia 25.000 euroko aurrekontua dute eta uztail azkenetara amaituko dituzte



Astlehenean hasi zituzten obrak Abadeortu inguruan.

ABADIÑO • A.M.

Uztailaren 5ean hasi ziren Solozabalgo eta Abadeortuko bidegorria egokitzen. Modu honetan, Abadiñoko Udalak aurrekontu parte hartzaileetako proposamenik bozkatuena babestu gura izan du. 24.912 euroko aurrekontua izango dute horretarako, eta uztail azkenetara amaitzea aurreikusten du udalak. "Oinezkoen joan-etorri handia duten puntu bi lotzen dira. Lanak egin ondoren, zeharkaldia irisgarriagoa izango da".

EH Bildurentzat lanak hastea "aurrerapauso" bat da; hala ere, inguruan "mugikortasun jasangarriagaz" lotura duten arazo gehiago dagoela gogoratu dute koalizio subiranistako kideek.

Garaiko altxor kultural eta naturalak gida batean jaso dituzte

Garaiko Udalak gida bat kaleratu du herriko ondarea ezagutarazteko. Gerediaga elkarteagaz landu du gida

GARAI • EKAITZ HERRERA

Argitalpenean herriko tokirik esanguratsuenak eta oinez egiteko moduko ibilbideak batu dituzte. Besteak beste, Momoioko San Juan baselizari eta nekropoliari, Etxetako arteari, Goitia jauregiari, udaletxeari, Zubiaurretarren

etxeari eta herriko elizei buruzko aipamenak daude. Udalak herritarrek eta bisitariak gonbidatu ditu Garaiko txokoez gozatzera. Bestalde, uztailaren 17an, doako bisita gidatua eskainiko dute. 18:00etan izango da. Lekua erreserbatzeko, 946818066 telefonora jo behar da.



Garaiko gida.

Herritar talde batek bideoa kaleratu du Parkeko Hotela ondare legez izendatzeko eta ez botatzea eskatzeko

Eraikinaren historia eta balio arkitektonikoa nabarmendu gura izan dituzte ospitaleko langile ohi biren testigantzagaz

ZALDIBAR • A.M.

Parkeko Hotela eraistearen aurka dagoen herritar taldeak egitasmo berri bat landu du hotela ez botatzea eskatzeko. Eraikinaren historia eta balio arkitektonikoa nabarmentzeaz gainera, ospitale psikiatrikoko langile ohi biren testigantzak ere biltzen ditu ikus-entzunezko lanak. Carmen Vidaurre eta Maria Puy Urbiola ospitaleko

140 urte beteko ditu, Bainuetxeko Establezimenduak eta lorategiak lez. Baserriak alde batera utzita, Zaldibarrekin zenbat eraikin zibil ditu Parkeko Hotela baino zaharragoak? Horietatik zenbat etxebizitza ez direnak?", galdetu dute txostenean plataformako kideek.

Plataforma herritarra

"Herriko ondarea defendatzeko asmoagaz", herritar talde bat elkartzen hasi zen urte hasieran, "Zaldibarko udal gobernu taldeak Parkeko Hotela eraisteko asmoa erakutsi zuenetik, hain zuzen ere". Apirilean, Parkeko Hotela txostena banatu zuten herritarren artean; eskuorriak ere banatu zituzten buzoietan. Horrez gainera, apirilaren 28an, kontzentrazio jendetsua egin zuten udaletxe parean. Herritar taldeak mobilizatzen jarraitzeko asmoa agertu du mezu baten bitartez, "Parkeko Hotela eraisteko asmoa bertan behera utzi arte".

"Familia bat osatzen genuen denok, pazienteek eta langileok. Egun ahaztezinak igaro genituen"

langileak izan ziren, eta eraikinean bertan bizi ziren. "Familia bat osatzen genuen denok, pazienteek eta langileok. Egun ahaztezinak igaro genituen bertan", azaldu du Maria Puyk. "Parkeko Hotela bakarra da, ordezkazina. Laster



Maria Puy Urbiola, ospitaleko langile ohi bat.

Izurriteak kontrolatzeko sistema jasangarrien aldeko apustua egin dute Iurretan

Iurretako Udalak protokoloa aktibatu du, "izurriteei aurre egiteko eta udalerrian horien eragina minimizatzeke".

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak izurriteak kontrolatzeko sistema modernizatu du, zerbitzua hobetzeko. Kontratu berri baten bitartez, kanpoaldeko zein udal-eraikinetako tratamenduak areagotzea da helburua. Jarri dute maiztasuna handituko

dute eta sistema jasangarriak instalatu dituzte, hala nola Smart Pipe tranpa automatikoen sistema digitala. Desinfektatze kanpaina eta arratoiak hiltzeko ere gehituko dituzte. Eraikinetan Smart catch teknologia ipiniko dute, produktu kimikoak murrizteko sistema.



Udalak edozein izurrite-zantzu jakinarazteko eskatu die herritarrei.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapena jendaurrean ipini dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapena (HAPO) ikusgai ipini dute Ibarretxe kultur etxean, urriaren 8ra arte. Era berean, Iurretako Udalak parte hartze prozesu bati ekingo dio herritarrek etorkizuneko Iurretaren diseinuan euren ekarpenak egin ahal izateko. Udalak tailer tematikoa antolatu du herritarrei HAPOaren aurrerapena hurbiltzeko eta haien iradokizunak eta alternatibak biltzeko, Iñaki Totorikaguena alkateak ohar batean azaldu duenez. Atzo izan zuten lehenengo hitzordua.

"Datozen urteetan HAPOren tramitazioan eman beharreko beste urrats bat da hau. Plan horrek Iurretako etorkizuneko hirigintza zuzenduko du, eta egungo eta etorkizuneko beharrian eta eskaerei erantzun die; besteak beste, hiri-antolamenduari, hiri-inguruneen berronartzeari, etxebizitzari, jarduera ekonomikoari, ekipamenduari, espazio libreei eta berdeguneei dagokienez", dio alkateak.



Iurreta
Elerizateko Udala

IURRETA UDALERRIKO ENPRESA-PROIEKTUEN XIII. LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Helburua: Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko: 2021eko urriaren 31 arte, H.A.Z.-en (Bidebarrieta 5).

Saria: 6.000 €

Tel.: 946 201 200
www.iurreta.eus



Untzez beteriko txorizoak aurkitu dituzte Durangoko txakurren parkean

Zumar kaleko txakurrentzako gunean eta Zuhatzola parkearen inguruan agertu dira



Zumar kaleko txakurren parkea.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Joan zen asteen, untzez beteriko txorizoak agertu ziren Zuhatzola parkearen inguruan, baita Zumar kaleko txakurren gunean ere. Durandog elkarteko kideek gertaturikoa salatu dute. Hala ere, dirudienez, txakurrei kalte egiteko ekintza honek ez du ondorio larriarik izan. "Guk dakigula ez da txakurrik kaltetu", azaldu dute elkarteko kideek. Antza denez, txakur baten jabeak untzez beteriko txorizoa ikusi zuen eta harrezkero inguru horretan gehiago dauden ala ez aztertu dute. Udaletxean ere ipini dute salaketa. Hau ez da txakurren kontrako eraso bat gertatzen den lehenengo aldia Durangon. Orain urte batzuk ere antzeko gertakarak izan ziren herrian.

Politikan

Neskutz Rodríguez
Herriaren Eskubidea



Eskoletako sukaldeak guztion onuragarri

Urte pare bat igaro dira Auzitegi Gorenak 7 catering enpresa zigortu zituenetik, Euskadiko eskoletako menuen prezioan %10eko gaitzeta euren artean adostu zutelako. Ez zen inolako erantzukizun politikorik argitu.

Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean proposatutako kudeaketa-eredu horrek eskola-sukalde asko kentzea ekarri du. Beste aldagaketa batzuk ere ekarri ditu, bai elikaduran baita eskolen eta tokiko saltokien arteko merkataritza-harremanetan ere.

Aldaketa horren ondorioz zerbitzuaren eta produktuaren kalitateak okerrera egin omen zuen, EHIGE-k egindako inkesta baten arabera. Hau ikusita eta umeen osasunaz arduratuta, ikastetxeetan jantoki propioak jartzearen alde agertu diren hainbat plataforma sortu ziren - hor daukagu adibidez Berton Bertokoa Durangaldean.

Berton Bertokoako gurasoek 5 urte baino gehiago daramatzate bere proposamena lantzen, non eskoletan sukalde propioen onurak azaltzen diren. Ekaineko osoko bilkuran aho batez proposamena onartu zen eta orain Eusko Jaurlartzari helaraziko diogu.

Udaletxean ordezkariak dugun alderdi guztiok bat etorri ginen azpimarratzen elikagaiak zuzenean eskolan prestatzeak ekarriko litzkeen onurak osasunean, ingurumenean, lehen sektorearen sustapenean eta enpleguaren sorreran.

Orain, pandemia betean, erakundeok tokiko ekonomia bultzatzeko diskurtsoaren aldeko apustua egin dugun honetan, espero dezagun Eusko Jaurlaritzak proposamen hau ate atzean ez botatzea eta diskurtso hutsean ez geratzea. Espero dezagun Eusko Jaurlaritzak eskola-sukaldeak benetan sustatu eta zaharbertitzaren aldeko apustua egitea, eta enpresa gutxi batzuen onuren aurrean interes orokorra defendatu dezan.

Durangaldea asteen

Ohiturari jarraituta, axpetarrak Larranora errogatibari joango dira zapatuan

Atxondo | Urteroko ohiturari jarraituta, zapatuan axpetarrak errogatibari joango dira Larranora. Oinezkoentzako hitzordua 8:30ean ipini dute; Axpeko plazatik irtengo dute. Ibilgailuz doazenak 10:15ean elkartuko dira, Urkiolan. 11:00etan meza egongo da Larranoko Santa Barbara ermitan, eta ondoren hamaiketako eta makila txapelketa egingo dituzte.

Julia Pererak edo Patxi Lopez Lakuntzak ordezkaturiko dute Mikel Uriguena

Durango | Mikel Uriguena Elkarrekin Podemos - Herriaren Eskubidea - Independentek koalizioa zinegotziak dimisioa aurkeztu zuen ekaineko osoko bilkuran, eta talde morea haren ordezkaria nor izango den erabakitzen dabil. Julian Ríos alkateordeak aurreratu du Uriguenaren lekua Patxi Lopez Lakuntzak edo Julia Pererak beteko duela seguruenik. Biak zinegotzi izandakoak dira.

Maiztegi herri eskolako berokuntza-sistema aldatuko dute datozen hileetan

Iurreta | Gasoil bidezko berokuntza-sistemaren ordeztu, Iurretako Udalak gas naturala kondentsatzeko sistema ipiniko du datozen hileetan. Udal arduradunek argitu dute gasoil bidezko sistemak funtzionamendu egokia badu ere, zaharkituta geratu dela eta energia-eraginkortasun eskasa duela. Obrek 59.848 euroko inbertsioa eskatuko dute.



Suhiltzaileak pertsona baten bila ibili dira N-636 errepidearen azpiko tunel batean

Abadiño | Martitzenean, suhiltzaileak N-636ko zubiaren azpiko tunel batean pertsona baten bila aritu ziren Abadiñon. Kameren bitartez, tunelaren barruan pertsona bat egon zitekeela ikusi zuten, baina ingurua aztertzeraz joan zirenean, suhiltzaileek ez zuten inor aurkitu.

Suhiltzaileek azaldu zuten, bilaketa oxigeno botilekin egin zuten. Barruan pertsona bat egon zitekeelakoan ekin zieten bilaketa lanei, baina ez zuten inor aurkitu barruan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

SCHMIDT
Home SCHMIDT Home

Montatzaileak behar ditu.
Deitu edo bidali kurrikulumak
info@schmidt-abadiano.com
605 740 176

SCHMIDT ABADIÑO



LEKUZ KANPO

Beheko irudian lekuz kanpo dauden sei gauza daude. Zeintzuk?





Otxandio 2021

Uztailak 9

22:00 'Urtzen' zinema Andikonan

Uztailak 16

21:30 'Lur eta Amets' zinema Andikonan

Uztailaren 16tik 18ra,

Argazki erakusketa Santa Maña jaiak

Uztailak 17

Txiki-gazte eguna Plazan, **0-9 urte.**
Mainondon, **10 urtetik aurrera**

Uztailak 18

19:30ean Urduri dantza taldea Plazan

Uztailak 19

19:00 'Kale gorrian' antzerkia Plazan

Uztailak 22

19:30 Sokadantza Plazan

Uztailak 23

22:00 'Jainkoak ez dit barkatzen' zinema
Andikonan

Uztailak 25

13:30 Andikonako omenaldia (85. urteurrena) Jarraian Limonada + Musika kontzertua udal bandaren eta Araiako bandaren eskutik

19:00 Iñaki Palacios & The Gael's Plazan

Uztailak 30

20:00 Puro Relajo



biziguraz betie



OTXANDIOKO
UDALA

Urduri dantza taldea, gogotsu plazara irteteko

Sei edo zazpi taldek Otxandioko plaza beteko dute uztailaren 18an; uztailaren 22an sokadantza dantzatuko dute, emanaldi osatuagoagaz



Urduri dantza taldeko kideak, sokadantza dantzatu aurretik.



Urduri taldeko gazteak emanaldi baten aurretik.

OTXANDIO • JONE GUENETXEA

Egunotan, Urduri dantza taldea izango da Otxandioko udako egitarauko protagonistetarikoa. Uztailaren 18an emanaldia eskainiko dute. Sei edo zazpi talde batuko dira plazan. Pandemiaren eraginez, entseguak bertan behera izan dituzte hainbat hilabetez. Azken asteetan, oster, berriro elkartzeko ahal izan dira. "Orain hilabete ekin genien entseguen", azaldu du Nuria Urigoitia taldekidea. "Taberna bateko irekieran, ekitaldi txiki bat antolatu zuten eta, horretarako, dantzari talde bat batu genuen, neurri guztiak beteta", gogoratu du Asun Diegok. Ekitaldi horren bitartez konturatu ziren gazteak gogotsu zeudela dantzarako. "13tik 18 urtera bitarteko gazteak oso pozik

ikusi genituen eta horrek animatu egin gintuen. Arauak lasaitu zirenean gurasoekin batu ginen", dio Miriam Uribe. Kanean aire librean entseatzeko hasi ziren, eta Mekoleta-ko jaietan parte hartu zuten.

Dantza tradizionalaren arloan, belaunaldi berriak erakartzea sarritan ez da erraza izaten. Horri urtebeteko etenaldia gehituz gero, egoera zaildu egin daiteke. Otxandioren kasuan, oster, gazteek gogotsu jarraitzen dute. "Agiar genero ikuspuntutik mutil gutxiago etortzen dira, baina talde moduan badago erreleboa", gaineratu du Mikel Urigoitia.

Sokadantza osatuagoa

Orain urte batzuk, emakumeen sokadantza berreskuratu zuten.

Uztailaren 22an Andikona plazan dantzatuko duten sokadantzak, hala ere, aldaketa batzuk izango dituela aurreratu du Endika Garatek. "Dokumentazio bat erakutsi ziguten eta horren arabera berreskuratu genuen sokadantza. Orain, gehiago dokumentatu gara, eta dantza osatuagoa egin dugu", argitu du Kris Lasuenek. Ikerturikoaren arabera, Otxandioko andrekin lurretako moduan dantzatzeko zuten, baina desberdintasun batzuekin. "Aurretik egiten genuen zatiari beste zati bat gehitu diogu orain. Bata besteagaz osatu dugu", azaldu du Ainhoa Lasuen taldekidea. Lan-keta horretan, Urduri taldekoek lurretako dantza taldearen laguntza izan dute.

PADILLA
PADILLA GAZTAK
Andoni Padilla Bengoa - Aitor Uribe Padilla
Barrio Mekoleta, 14
Tel.: 645 768 576
Otxandio (Bizkaia)

LAVANDULA
KOSMETIKA NATURALA
Otxandion egindako kosmetika bizia, osasungarria eta ingurumenarekin konprometitua.
945 339 761
info@lavandulacosmetica.com

Kerizara
Nekazaldiria
Kerizara Baserria
Kontaktua: Jaione Añuria Otxandiano
Mugikorra: 605 771 479

OTXAUNTZ
EUSKAL AHUNTZ GAZTA
Lorena & Fede
Marintarrena baserria, 3
Otxandio (Bizkaia)
Tel.: 665 715 133 / 690 290 279

danoena
UDAN EGUNERO
ogitartekoak
hanburesak
plater konbinatuak
eta pizzak
Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

HONTZA EXTREM
DENONTZAKO ABENTURA PAKETEA
Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com

LORA
TABERNA · OTXANDIO
Tel.: 677 568 580 / 945 368 931 - lorataberna@gmail.com

URREJOLA OKINDEGI
Artekale, 31
OTXANDIO
Tel.: 945 450 093



Anari
MUSIKA ABADIÑO :: Uztailak 10

Anarik kontzertua eskainiko du Mendiola auzoan, zapatuan

Abadiñoko Mendiola auzoan jai giroa nagusituko da asteburuan. Izan ere, gaur San Kristobak jaiak hasiko dituzte. 20:00etan luntxa egongo da eta 21:30ean bertso jaialdia hasiko da. Bertan, Amets Arzallus, Erika Lagoma, Iruri Al- tzerreka eta Txaber Altube bertso- lariai arituko dira. Gai jartzaile lanetan, Ainhoa Urien abadiñarra izango dute. Bestalde, bihar, Anari abeslari gipuzkoarrak kontzertua eskainiko du, 19:30ean.

Anarik hogeit urtetik gorako ibilbide musikala du eginda, Nick Cavek, Bob Dylanek eta beste zen- bait artistak eraginda musika gor- din eta poetikoa sortuz. Abeslari azkoitiarraren lanaz gozatzeko aukera egongo da Mendiolan.

Uztailaren 9an

BERRIZ musika
‘Al otro lado’ (Zanguango Teatro), 19:00etan, Olakueta plazan.

DURANGO tailerrak
Inpresionismoa eta Regoyosen lana ezagutzeko tailerrak, 10:00etan, Arte eta Historia Museoa. 5etik 7 urtera arteko umeentzat. Uztailaren 9an, 16an, 23an eta 30ean; eta abuztuaren 6an.

DURANGO musika
Licenciado Vidriera, 21:00etan, Platerueneko terrazan (euria eginez gero Landako Gunean) .

MAÑARIA zinema
‘Un sueño posible’, 22:00etan, plazan.

ZALDIBAR musika
‘Ipuin dantza’, 17:00etan, udaletxeko plazan.
‘Euskañolitis’ (Oihan Vega), 20:00etan.

ZORNOTZA bertsoak
Bertso saioa: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Jone Uria, 19:00etan, Amorebieta IV frontoian.

ZORNOTZA musika
Julio Veiga, 20:00etan, Boroa auzoan.

ZORNOTZA musika
Xabi Solano Maiza & Kimua dantza taldea, 21:00etan, Jauregibarriako aparkalekuan.

Uztailaren 10ean

ABADIÑO musika
J. Hayden-en ‘Nelson’ meza (Durangoko Orfeoiares+Izadi Ensemble), 20:00etan, San Trokaz elizan. Fernando Urain Oñederrak zuzenduta. Gonbidapenak Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan.

DURANGO musika
GertuFest: Artisau lan eta produktuen azoka + Denboraren Bankuak antolatutako tailerrak (argazkilaritza, lorezaintza, lepoko bitxiena eta sukaldaritza), 17:00etan.
‘Mambo Bingo’ (Ganso&Cia), 20:30ean, Benita Uribarrena parkean.

DURANGO bertsoak
Durungaldea uztabarritzen bertso zirkuitua: Erika Lagoma, Igor Galarza, Aitor Bizkarra eta Beñat Gaztelumendi, 18:00etan, Aurora Abasolo parkean. Gai jartzailea: Iruri Altzerreka.

ELORRIO musika
Feedonia, 20:00etan, Ganondo parkean.

ZALDIBAR sukaldaritza
Showcooking-a, 12:00etan, udaletxeko plazan.

ZORNOTZA antzerkia
‘Mr Frack’ (Xabi Larrea), 12:30an, Zornotza Aretoa.

ZORNOTZA musika
Soinutxikie, 18:30ean, Amorebieta IV frontoian.

ZORNOTZA musika
Onintze, 20:00etan, Dudeako San Migel auzoan.

ZORNOTZA musika
En Tol Sarmiento, 21:00etan, Jauregibarriako aparkalekuan.

Uztailaren 11n

ELORRIO ikuskizuna
‘Amaren intxaurrak’ (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 19:00etan, Ganondo parkean.

ZALDIBAR bakarrizketa
Julen Axpe, 19:00etan, Zaldia plazan.

ZORNOTZA tailerrak
Familientzako ekintzak: parkea eta tailerrak, Larreako Goiko eskolan (10:00-14:00/16:00-20:00).

ZORNOTZA txapelketa
Zamakona Memoriala XXXIX. Xake Txapelketa, 10:00etan, Gure Kirola frontoian. Zornotza Xake Taldeak antolatuta.
Graffiti tailerra, 12:30ean, Jauregibarria aparkalekuan. Urgozo errugbi taldea.

ZORNOTZA musika
Supercremalleras, 20:00etan, Ogenbarrena auzoan.

ZORNOTZA ikuskizuna
‘Akelarre Folk’ (Lekittoko Deabruak), 22:00etan, Jauregibarriako aparkalekuan

Uztailaren 14an

BERRIZ zirkua
‘Txoria txori?’ (Sarini Zirkua), 18:00etan, eskolako patioan.

Uztailaren 15ean

ABADIÑO musika
Urmuga: Olatz Salvador + Maddi Oihenart + Niko Etxart + Dupla, 18:00etan, Mendiolan, frontoi osteko landan.

ZORNOTZA antzerkia
‘Erlauntza’ (Vaiven Produkzioak), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Uztailaren 16an

BERRIZ musika
‘SÓ’ (SamPatito Pato), 19:00etan, eskolako patioan.

DURANGO antzerkia
‘Full house’ (Electrico 28), 19:00etan, Aurora Abasolo parkean.

ELORRIO musika
Juanma Urriza 5tet, 20:00etan, Ganondo parkean.

ZORNOTZA antzerkia
‘Etxerik txikiena’ (Yarleku), 18:00etan, Zornotza Aretoa.

ZORNOTZA antzerkia
Kittu, 20:00etan, Bernagoitia auzoan.

Zinema

.....

:: Durango ZUGAZA

• **¡ A todo tren! Destino Asturias**
barikua 9: 19:30 / 22:00
zapatua 10: 16:45/19:00/22:30
domeka 11: 17:30/19:45
astelehena 12: 17:30/20:15
martitzena 13: 17:30/20:15
eguzartena 14: 17:30/20:15

• **Viuda Negra**
barikua 9: 19:15 / 22:00
zapatua 10: 17:00/19:45/21:30
domeka 11: 17:00/20:00
astelehena 12: 17:30/19:30
martitzena 13: 17:30/19:30
eguzartena 14: 17:30/19:30

• **Miss Marx**
barikua 9: 19:30
zapatua 10: 19:45
domeka 11: 19:45
astelehena 12: 18:00
martitzena 13: 18:00
eguzartena 14: 18:00

• **Fast & Furious 9**
barikua 9: 22:00
zapatua 10: 17:00/22:00
domeka 11: 17:00
.....
astelehena 12: 20:15.....
martitzena 13: 20:15
eguzartena 14: 20:15

:: Zornotza ARETOA

• **Amelie**
barikua 9: 19:30
zapatua 10: 19:30

• **Invictus**
domeka 11: 20:00



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

 **Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 **Zurgintza**

 **ATERPE AROTZAK**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



“Plateruenak kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa izan behar du”

'Plateruena ta gero zer?' dinamikako kideek Plateruena kudeatzeko 'Lantegi eta erakusleiho' proposamena aurkeztu dute



KULTURA • J.D.

'Plateruena ta gero zer?' dinamika-ko kideek proposamena Durangoko Udaleko alderdi guztiei aurkezteko asmoa dute. Ane Arbeo eta Aritz Lasarguren dinamikako kideekin batu da ANBOTO.

'Plateruena: Lantegi eta erakusleiho' kultur gunea kudeatzeko proposamena aurkeztu duzue. Zeintzuk dira proposamen horien ardatzak?

Ane Arbeo: Gure ustez, Plateruenak kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazio bat izan behar du, hau da, sorkuntzen emaitza erakusteko gune bat izateaz gainera, sorkuntza prozesuak sustatu, hauspotu eta lekua emango dien

gunea izan behar duela uste dugu. Horregaitik da proposamenaren izenburua 'lantegi eta erakusleiho'. Denborak eta esperientziak erakutsi digute ostalaritzaren eta kulturaren arteko hartu-emanaren proiektua garatu gura bada, ostalaritzako ekipamenduak horren osagarri lez erabili beharko lirateke soilik. Asteazkenean, besteak beste, ikastaroak, tailerrak, erresidentzia artistikoak, ikus-entzunezkoen ekoizpenak egingo lirateke. Kultur transmisio horizontalean ere sakondu gura genuke, sortzaile-hartzaile dikotomia lausotu eta elkarrengandik ikasteko. Beste ardatzetariko bat euskararen sustapena litzateke.

Aritz Lasarguren: Durangoko kultur ekosisteman eragiteak eta berau sustatzeak ere berebiziko garrantzia dute Plateruena berrian. Horrez gainera, proposamenak izaera publiko komunitarioa izango du. Plateruenak zerbitzu publikoa eskainiko luke eta herritarrek egitasmoan inplikatzeko mekanismoak erabili beharko lituzke.

Jaso duzue erantzunik?

A.A.: Aurreko asteazkenean aurkeztu publikoa egin eta gero, proposamenaren kopia bana bidali genien udaleko zinegotzi bakoitzari. Dena dela, udal gobernuagaz batu izan gara gure proposamena aurkeztu eta dinamikaren berri emateko.

A.L.: Guk dakigula, udalak ez du oraindik Plateruenaren inguru-

ko erabakirik hartu. Hurrengo asteazkenean alderdi politiko guztiekin batzeko asmoa dugu.

Durangoko hainbat kultur eragileren eta sortzaileen ekarpenak jaso dituzue proposamenean.

A.A.: Guztira, 22 elkarte eta erakundegaz batzartu gara, eta kultura munduko 34 pertsonagaz aurrez-aurre batu gara iritzia partekatzeko. Horrez gainera, lau saio ireki egin ditugu hileotan, eta bertan 82 lagunek parte hartu dute. Guztira, lau saio ireki izan dira; lehenengoan Platerueneko egitasmoari buruz hausnartu genuen, eta ondoren goetan gai espezifikoak jorratu genituen: kultura, euskara eta parte hartzea.

A.L.: Era kolektiboan osatu gura izan dugu proposamena hasieratik. Izan ere, jarrera irekia erakustez gainera, uste dugu proposamena bera aberastu eta balio erantsia emango diola.

Durangotik kanpora ere egon gara zenbait esperientzia ezagutzen: Elorrioko Arriolan, Azpeitiko (Gipuzkoa) San Agustinen eta Gernikako (Bizkaia) Astran, esaterako.

Durangoko kultur mahalaaren sorkuntza ere alpatzen duzue. Ez da proposamen berria.

A.L.: Urteetan hainbat saiakera egin da Durangoko eskaintza kulturala batzeko eta koordinatzeko, zenbait arrazoiengaitik erroto ez direnak. Herri legeak kulturarekiko perspektiba bateratua izateko beharrezko dagoela nabaria da. Gune bakoitzaren autonomia man-

Era kolektiboan osatu gura izan dugu proposamena hasieratik; balio erantsia ematen dio horrek

tenduta, kultur eragileek zein erakundeek koordinaziorako esparru baten beharrezkoak dira.

A.A.: Kultur ekosistema elikatzea eta kultur eragileen sarea osatzea du helburu gure proposamenak. Durangoko kultur egitarau bateratu bat behar du, agenden koordinazioa baino haratago doana. Bertan, kultur egitarau bat jarraikortasunez eskaintzen duten Durangoko espazioetako ordezkariak (San Agustin kultur gunea, Bixenta Mogel Biblioteka, Bartolome Ertzila Musika eskola, Arte eta Historia museoa...), udaleko kultur teknikariak eta kultur zinegotziek osatuko lukete mahaia. Modu puntualean kultur eskaintza eskaini dezaketen guneek ere parte hartu ahaliko lukete.

Kalitatezko kultur programazio bat jasotzea garrantzitsua dela uste dugu, eta Plateruena itxi denetik, Durangon zein eskualde osoan hutsune sakona nabaritu dela esango genuke.

Udako ordutegia

8:30-13:30
ITXITA

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
1 2 3 4 5 6	1 2 3 4	1	1 2 3 4 5
7 8 9 10 11 12 13	5 6 7 8 9 10 11	2 3 4 5 6 7 8	
14 15 16 17 18 19 20	12 13 14 15 16 17 18	9 10 11 12 13 14 15	
21 22 23 24 25 26 27	19 20 21 22 23 24 25	16 17 18 19 20 21 22	
28 29 30	26 27 28 29 30 31	23 24 25 26 27 28 29	

Iurreta
Elizateko Udala
HENRI BIBLIOTEKA

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

EURI ZITALARI ESKER
Itxaro Borda
(Susa)

IZARAK
Goizane Aizpurua
(Alberdania)

EGUN GORRIETAN
Elena Martinez
(Alberdania)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso



Olatz Salvador.

Olatz Salvador, Dupla, Niko Etxart eta Maddi Oihenart Urmugaren Abadiñoko geldialdian

Abadiñoko Mendiola auzoan izango da kontzertua, uztailaren 15ean, 18:00etan

MUSIKA • A.M.

Urmuga egitasmoak musika, poesia eta mendizaletasuna batuko ditu beste urte batez. Aurtengo edizioak Abadiñon izango du geldialdia, uztailaren 15ean. Olatz Salvadorrek, Duplak, Niko Etxartek eta Maddi Oihenartek kontzertua eskainiko dute Mendiolan, frontoi osteko landan, Et incarnatus orkestragaz batera. "Euskal Herritarrek, euskaraz, doinuak eta mendiak dekubritzeko deia izango da. Ametsako bidaiaz bat egiteko gonbitak", azaldu dute antolatzaileek. Biga-

Lau artistek Et incarnatus orkestragaz batera eskainiko dute kontzertua Mendiolan

Uztailaren 13an hasi eta uztailaren 31ra arte 385 kilometroko mendi zeharkaldia egingo dute

rrren edizioa du aurtengoa, iazko edizioa arrakastatsua izan zela ikusita.

Uztailaren 13tik 31ra
Euskal Herriko mendebaldetik hasi eta ekialdera egingo du aurtengo ere Urmuga egitasmoak. Hemen etapak osatzen dute aurtengo ibilbidea; uztailaren 13an hasi eta uztailaren 31ra arte 385 kilometroko mendi zeharkaldia egingo dute parte hartzaileek. Kontzertuetarako sarrerak www.urmuga.eus webgunean daude salgai.

Heriotza ardatz duen 'Amaren intxaurrak' Elorrion aurkeztuko dute

Pirritxen, Porrotxen eta Marimototsen lan honen emanaldia domekan izango da, uztailak 11, Ganondo parkean

ELORRIO • A.M.

Amaren Intxaurrak ikuskizunak heriotzaren gaia jorratzen du. Haurrek eta familiek gaia lantzeko baliagarria izatea gura du sudurgorrien lan honek.

Ikuskizun honetarako, Pirritx eta Porrotx Marimototsegaz elkartuko dira parke magikoan. Bertan, intxaurrondoa landatu zuten orain hiru urte, Amatxo Loretoen oroimenez. Emanaldian, intxaurrondoak emaniko lehenengo fruituak dastatuko di-

tuzte, horiek jan ahala familiak Loretogaz bizitako abenturak partekatu ahal izateko. "Egun aproposa izango da denok elkarrekin hazi horiek ereiteko... mundu berri bat sortzera goaz!", azaldu dute.

Sarreraren erreserba Arriolan
Eguraldi txarra egingo balu, Arriola antzokian egingo litzateke. Sarrera doakoa da, baina aurretik erreserba egin behar da Arriola antzokian bertan.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Gai librean

Iceberga begi-bistan!

Ezaguna da honezkero icebergaren irudia: zati ikusgarri bat du, baina urazale-tik ikusezina den zatiak sostengatzen du. Estrapolatu irudia hainbat biolentzia mota azaltzeko, eta konturatuko gara agerian dagoena, ikusgarriena dena, beti sostengatzen duela ia ikusezina den zatiak. Badago oinarri bat, inplizitua dena, ikusgarria dena eta eskandalizatzen gaituena eusten dituen. Samuelen erailketarekin esnatu ginen egun batean, eta askok pentsatuko zuen: "nola da posible?", "XXI. mendean eta oraindik horrela?"... Icebergari punta ikusi arte itsasontzian doazenak ez dira larritzen; baina ikusi ez arren, egon badago, ikusi ez arren, icebergaren benetako sostengua urpean duen zati ikaragarri handia da.



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Icebergari punta ikusi arte itsasontzian doazenak ez dira larritzen; baina ikusi ez arren, egon badago

Samueli, beste askori lez, bizia kolpeka erauzi diote nahi duen hori izateagatik

Edonor hil arte jipoitzea dagoen ekintzarik nardagarriena da. Norbait hiltzea gordin bada, norbait hori minaren eta sufrimenduaren mugetaraino eramanez hiltzea are gordinagoa da. Samueli, beste askori lez, bizia kolpeka erauzi diote nahi duen hori izateagatik. Hala ere, azken jipoirenekin aurretik jasotzen diren zaplazteko, irain, kokoteko, bazterkeria eta mespretxu bakoitza, hau da, icebergaren urpeko alde hori guzti hori, azken jipoia sostengatzen duena da. Gure eguneroko pentsamendu eta praktiketan dago giltza, albokoari nola begiratzen diogun eta nola tratatzen dugun. Icebergaren punta agertu zein ez, aurrean izango gaituzue, iceberg, goi zein behe alde, guztiz hondoratzen denera arte.

Amorebieta futbol klubak "ilusioz beterik" eta Durangaldeko bost jokalarigaz ekingo dio bigarren mailako abenturari

Amorebietak denboraldiko lehenengo entrenamendua egin zuen egunean, uztailak 8, Urritxan; sei fitxaketa aurkeztu ditu

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amorebieta lanera bueltatu da asteon. Ilusioz beterik ekingo dio Bigarren Mailako denboraldi historikoari. "Kategoria desberdina da, exigentea, baina ilusioz beterik ekingo diogu", azaldu zuen Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak lehenengo entrenamendu

fitxatu du Amorebietak, Logroñes taldetik. "Bigarren Maila jokatzetik datorren futbolaria da eta hemen ere ondo egingo duelakoan gaude", azaldu zuen entrenatzaileak. Oier Luengo (Zornotza, 1997) ere egongo da Velez de Mendizabalen esanetara. "Etxekoa da eta badakigu zer eman ahal digun; horregaitik ekarri dugu. Gosea du gainera, eta hori behar dugu guk", azaldu zuen Asier Goiria kirol zuzendariak.

Amorebietak Urritxan egingo ditu entrenamenduak, eta etxeko partiduak Lezaman jokatuko ditu.

Mikel San Joseren zain

Taldea indartzeko sei fitxaketak aurkeztu dituzte saio berean. Luengoz eta Olaetxeaz gainera, Markel Lozanok (Celta Btik), Iker Amorrortuk (Calahorratik), Oscar Gilek (Racingetik) eta Josu Ozkoik (Sabadelletik) defendatuko dute Amorebietaren kamiseta. Haez gainera, Mikel San Jose Athleticeko jokalaria ohiaren fitxaketa "lotzear" zen edizio hau ixterakoan.

"Garrantzitsua da jokalaria onak eta kalitatezkoak ekartzea, eta San Joseren fitxaketa oso aurreratuta dago", azaldu zuen Goiriak aurkeztu egunean.

Hasteko, Girona

Bigarren Mailako debuta txapelketako talderik sendoenetariko baten zelaian egingo dute urdinek, Gironaren aurka, hain zuzen ere. Abuztuaren 14an izango da partidua.



Olaetxea, Unzueta, Luengo, Zarrabeitia eta Uberuaga Durangaldeko jokariak.



Amorebieta futbol taldea denboraldiko lehenengo entrenamendua egin aurretik, atzo.

Urdinek Gironan jokatu dute Bigarren Mailako lehenengo partidua, abuztuaren 14an

saioan. Durangaldeko bost lagunek jokatu dute urdinekin. Mikel Zarrabeitia zornotzarrak eta Iker Unzueta abadiñarrak jarraitu egingo dute, eta iazko denboraldiko bigarren itzulian Urdulizekin jokatu eta gero, Unai Uberuaga zornotzarra Amorebietara bueltatuko da berriro. Nobedadeen artean, Lander Olaetxea (Abadiño, 1993)

Durangok emakumeen Euskal Kopa hartuko du laugarren urtez jarraian

Saskibaloia Lehenengo Mailan dabilzan Lointek Gernika Bizkaia, IDK Euskotren eta Kutxabank Araski taldeek elkarren kontra jokatu dute iraileko lehenengo asteburuan

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Emakumeen Euskal Kopako irabazlea zein den Durangon erabakiko da aurten ere. Landako kiroldegia laugarren urtez jarraian hartuko du euskal saskibaloia egun handia. Kopa hiru urtean Durangon jokatzeko Euskadiko Saskibaloia Federazioak, Durangoko Udalak eta Tabirako klubak 2018an sinaturiko

hitzarmena iaz iraungi zen, baina federazioak txapelketa aurten ere Durangora ekartzea erabaki du, Tabirakorentzat garrantzitsua den urteurren batengaitik: 50 urte joan dira Cafés Baqué enpresa Tabirakoren babesle denetik. Kopa iraileko lehenengo asteburuan jokatu dute Lointek Gernika, Gasteizko Kutxabank Araski eta Donostiako

IDK Euskotren taldeek. Hirurak Lehenengo Mailako taldeak dira.

Gaur parekatzeak erabakitze zozketa egin dute Landako kiroldegian. Irailaren 3an Gernika eta Araski taldeek neurtuko dituzte indarrak; irailaren 4an, IDK eta Araski taldeek eta irailaren 5ean Gernikak eta IDK-k. Partidu guztiak 18:00etan hasiko dira.



Emakumeen Euskal Kopako txapelketaren aurkezpenean Landako kirolgunean.



Eder Atutxa eta Aitor Romero dominak golkoratuta.

Atutxa eta Romero Espainiako txapeldun kickboxingean

Eder Atutxa iurretarrak urrezko domina bi irabazi ditu eta Aitor Romero garaitarrak bat. Borrokalaria biek Euskadiko selekzioa ordezkatu dute Espainiako txapelketan

KICKBOXINGA • J.D.

Euskadiko selekzioak 19 domina irabazi ditu Azuqueca de Henares herrian (Guadalajara, Gaztela-Mantxa) lehiatu den Espainiako kickboxing txapelketan: urrezko zazpi domina, zilarrezko lau eta brontzezko zortzi. Urrezko dominetatik hiru eskualdeko

borrokalariek lortu dituzte: Eder Atutxa iurretarrak light-contact eta kicklight modalitateetan 94 kiloz azpiko mailan, eta Aitor Romero garaitarrak kicklight-een 89 kiloz azpiko mailan. Kirolari biak Elorrioko Indar Xsport eskolako eta Durangoko Team Laureano taldeko kideak dira.

Jokaldia

Ibai Zabalaren izarra

Gaur egun oso zaila da 13 urte kirol profesionalean egitea; are zailagoa esku pilotan eta puntako izarra izan gabe. Bada, Ibai Zabalak egin ditu. Baina ez dezagun izar izatearen irudia txapelak irabaztera soilik mugatu eta har ditzagun bestelako ezaugarri batzuk ere kontuan:

1. Profesionaltasuna. Urteotan maila guztietako partiduak jokatu ditu Ibaik, horietako batzuk zenbaitek imajinatu ere egingo ez lituzkeen tokietan. Bada, den-denetan duen guztia eman du; berdin Portugaletik 3 kilometrora da goen Fariza herriko frontoi irekian zein binakako txapelketako finalurrekoan Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

2. Maila. Datu zehatzik izan ez arren, erratzeko beldur handirik gabe esango dut jokatu dituen partiduen ehuneko handi bat irabazi duela. Horrek argi uzten du porrota garesti saldu duen pilotaria izan dela, partiduen konbinazioa edozein mailakoa izanda ere.



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Jokatutako ehunka partiduetan jarrera eredugarria izan du; beti aurkaria, bikotekidea, epailea eta ikuslea errespetatuz

Pilotarien greban Larunbegaz batera hartu zuen rola solidaritatearen adierazgarri da

3. Jarrera. Jokatu dituen ehunka partiduetan jarrera eredugarria izan du; beti aurkaria, bikotekidea, epailea eta ikuslea errespetatuz. Hortik ere etorri zaio pilota mundutik jaso duen kariñoaren zati handi bat.

4. Erresilientzia. Erresilientzia ez-beharrei aurre egiteko gaitasuna da, eta halakorik ere bizi izan du Ibaik. Esaterako, lesioen gurutze bidea. Esquetako lauzpabost ebakuntzari edota oineko eskafoide hezurreko hausturari beti izan duen izaera langilearekin egin zien aurre, eta denetatik indarberrituta bueltatu zen kantxetara.

5. Elkartasuna. Pilotarien greban Larunbegaz batera hartutako rola da solidaritatearen adierazgarri. Irabazteko baino galtzeko gehiago zeukan egoera baten aurrean, pilotari grebalarien bozeramale izatea onartu eta etorkizuneko pilotarien lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin jardun zuen grebak iraun artean.

Beste batzuen artean, aipaturiko bost punt(u)ak osatzen dute Ibai Zabalen izarra. Lehen mailako txapelik ez da bertan ageri, baina, besteak beste, pilota mundua inoiz ez bezala inarrosi zuen lurrikararen aurrean hamabost pilotariko taldea ia hogeiguneguz gidatu zuen.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

» Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MATRIKULA

Uztailaren 19tik 21ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Mekatronika Industrial
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/ogh
943 71 80 09
rigarza@mondragon.edu

www.mondragon.edu/gmh
664 298 704 • 664 298 683
onarpena.lhm@mondragon.edu

m
Mondragon
Unibertsitatea

25
ANIVERSARIO
25 ANOS

LABORAL
EUSKADI

HETEL

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



// AUKERA

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E: F 130.000 €

SANTA ANA: 76 m². 3 logela, komuna eta sukaldea. Berogailua. Leiho berriak. **C.E.E= E 125.000 €.**

BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **CEE= G. 125.000 €**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen mailako materialekin berriztatua. **C.E.E.= E. 97.500 €**

ATXONDO: Ikuspegi ederrak mendietara. Argitsua. Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. **C.E.E= G 130.000 €**

BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna duxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua.C.E.E= F ALOKAIKUAN, EROSTKO AUKERAGAZ. **110.000 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. **99.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

AUKERA: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 317.000 €**

ABADIÑO: Zelaieta. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. **165.000 € C.E.E=E**

ABADIÑO: Berriztatzeko eraikina. 3 solairu 152 metrokoak eta atikoa. **200.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m2-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

JUAN MARI ALTUNA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 206.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

GARAI: Baserria. 237 m2. 15.624 m2-ko lursaila. **C.E.E=G.**

MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G. 120.000 €**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 155.000 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F. 140.000 €**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E=F 145.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G 178.000 €** **NEGOZIAGARRIA**

SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E= F. 226.000 €**

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 350.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila, eraikitzeo baimenagaz. **250.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeo. **125.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

ARTEKALEA: Lokala. Alokairuan / Salgai. **550 € / 120.000 €**

OIÑITURRI: (Ezkurdi). Garaje itxia. **30.000 €**

F.J. ZUMARRAGA: Alokairuan / salgai. 80 m2. Izkina bi kaletan. Dena da erakusleihoa. Oso komertziala.

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m2. **SALMENTA 175.000 €**

ASK.ETORBIDEA. Garaje itxia. **24.000 €**

ASK.ETORBIDEA. 8.000 €-TIK AUERRERA.



// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua.

3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeo. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeo.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIKUAN

IURRETA: Arriandi. 3.036m²-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



www.inmoduranguesado.com



DURANGO

118 m²

3 logela

MONTEBIDEO/EZKURDI: 118 m². Egongela, sukaldea, jangela, 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua. EZIN HOBEA NORBERE GUSTURA JARTZEKO.

229.000 € C.E.E:E



ABADIÑO

2 logela

79,7 m²

ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. 79,7 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m2-ko garajea, 4,63 m2-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.

200.000 € C.E.E:E Aukera



DURANGO

3 Logela

79 m²

MUNTSARATS: 9.420 m²-ko lursail ederra landa eremuan. LAUA. Oso ondo kokatuta (sarbidea autoarentzat eta oinezkoentzat), argitsua eta ikuspegi zoragarriekin. Fruta-arbolak ditu, ureztatzeko putzua, aterpea, barbakoa, bi modulo aurrefabrikatu, erremintak, estalpea... OSO BEREZIA

99.500 €



DURANGO

79 m²

3 logela

JUAN DE OLAZARAN: 5 urteko antzinatasuna. 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (hego/ mendebaldea). Argitsua eta leku onean kokatua. Garajea eta 7 m²-ko trastelekua. Ezin hobea.

317.000 € C.E.E:B



DURANGO

4 Logela

110 m²

GALLANDA: (14 urteko antzinatasuna): 110 m². (bi altuera) Egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar/ Hegoalde). Altua. Leku onean kokatua. Garaje handia eta 7 m²-ko trastelekua. Ezin hobea.

430.000€ C.E.E: Bidean



DURANGO

79 m²

ASKATASUN ETORBIDEA: 79 m2. Egongela, sukaldea (berriztatzeko), 3 logela eta komuna (berriztatua). 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar /hegoaldea). Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua zero kotan. 8 m2-ko ganbara. Berriztatzeko.

176.000 € C.E.E: G



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 9 · 09:00-09:00	09:00-22:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 12 · 09:00-09:00
09:00-22:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 10 · 09:00-09:00	09:00-22:00
ETXEBarria Montevideo etorb. 2. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 13 · 09:00-09:00
09:00-13:30	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 14 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 15 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
09:00-22:00	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 11 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Inhar (856. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Happy birthday, **Madda**! Laster ospatuko dogu zure urtegunen danok batera. 28 mosu handi Corkera!

Zorionak, **Lu**! Ez dau udie hasteko modu hoberik zure urtegunen ospatzie baino! Asko-asko maite zaitugu! Mosu handi bat gure kirolari maiteari! Zure kuadrillako tiabuenak.

Gure etxeko printzesak, eguaztenean, uztailak 7, 8 urte egin ditu. Zorionak, **Iraide**! Jarraitu orain arte bezala. Mosu handi bat etxekoan partez.

Zorionak, **Maddi**! 5 urte handi! Zure neba Unax eta familia osuek egun zoragarrixe euki deizule opa deutsu! Mosu potolo bat danon partez.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡 24° / 14° ☁	ASTELEHENA 🌡 19° / 14° ☁	EGUAZTENA 🌡 22° / 14° ☁
DOMEKA 🌡 29° / 14° ☁	MARTITZENA 🌡 20° / 14° ☁	EGUENA 🌡 23° / 14° ☁

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

“Mendian edozer gauza gertatu daiteke, eta segurtasuna ezinbestekoa da”

Mendi-gidaria ez ezik, Miguel Angel Bernalte 'Pumu' arroila-gidaria eta eskalada-gidaria ere bada; Sokan proiektua sortu zuen orain urte bi, askotariko esperientziak eskaini



Miguel Angel Bernalte Rojo 'Pumu'
Mendi-gidaria
ELORRIO | 1981

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

'Pumu'-k mendiko formakuntza eta irteera gidatuak eskaintzen ditu, Euskal Herrian gehienbat. Dena dela, Pirinioetara, Kantabriara eta As-turiasera ere antolatzen ditu irteerak. Eskaladagaz lotuta jarduten du gehien. Bestalde, eskolaz kanpoko jarduera moduan eskalada irakasten du Elorrioren eta Zornotzan. Berrizko udalekuetan ere badabil eskalatzen irakasten.

Mendi ibilaldiak, eskalada eta arroila-jaltsierak egiteko aukera eskaintzen duzu. Abentura kirolak modan daude? Bai. Batez ere, eskaladan igarri dut gorakada handia.

Zeren bila doaz zure bezeroak?

Denerik dago. Alde batetik, horre-

lako ekintza bat egiteko materialik eta esperientziarik ez duten familiak daude. Horretarako lekuak ere ez dituzte ezagutzen, gainera. Esperientzia hori bizi gura dutelako deitzen dute. Iparrorratza edo mapak irakurtzen ikasi gura dituzten mendizaleak ere badaude, adibidez; mendian segurtasun handiagoz ibili gura dute.

Zer behar da mendi-gidaria izateko?

Mendia gustatu behar zaizu, ezinbestean. Bestalde, beharrezkoa da esperientzia izatea titulua lortzeko. Gainera, eskalada-gidaria edo arroila-gidaria izateko kondizio fisiko batzuk izatea ere behar da.

Pandemiaren eraginez, geroago eta jende gehiago dabil mendian. Asko-

Profil berri bat sortu da: mendira hurbildu direnak beste ezer egiteko aukerarik izan ez dutelako. Horiek edozein modutan doaz mendira

tan arduragabekeriak jokatzen dela uste duzu?

Profil berri bat sortu da: mendira hurbildu direnak beste ezer egiteko aukerarik izan ez dutelako. Horiek edozein modutan doaz mendira. Jendea galduta ikusi izan dut, txankletekin, motxila barik, urik barik.

Errespetau galdu diogu mendiari?

Ez denok, baina batzuek bai. Mendian edozer gauza gertatu daiteke eta segurtasuna ezinbestekoa da, lehentasuna da. Joan garen moduan, bueltatu egin behar dugu. Mendia hor egongo da beti.

Zerk sortzen dizu errespeturik gehien mendian?

Mendiak neguan, elurragaz, errespetu handia sortzen dit. Neguan elurra 'bizirik' dago. Elur gogorra bigundu egin daiteke konturatu orduko. Ezagutu barik leku arriskutsu batean sartzea ere kontuan hartu beharrezkoa da. Gertatu daiteke galduta egon eta aurrera jarraitzea, non sartuko garen jakin barik.

Galduz gero, zer egin behar genuke?

Nondik gatozen jakin behar dugu beti. Eta galdu bagara, irtendako lekura bueltatzea da onena. Ezin badugu, 112 telefonora deitu, biza arriskuan ipini barik.

Oso pozik bizi naiz Atxarte eta Araotz artean. Baina gogoa dut Pakistanera edo Himalayara joateko. Yosemitek ere asko erakartzen nau

Zelan eragin dizu pandemiak?

Hasieran igarri nuen, batez ere. Iazko udan nahikoa lan izan nuen. Uda ostean, urtarrilerara arte, eskolaz kanpoko jarduerak bueltatu arte, berriro ere geldialdia izan zen, baina orain lanez lepo nago. Ezin eskari guztiei aurre egin. Proiektu txikia da Sokan, kalitatezko eskaintza pertsonala eskaintzea da gure helburua.

Abentura bat bizitzeko leku bat?

Marokon, Suitzan, Alpeetan (Frantzia), Italian.. ibili naiz. Baina beti esan dut Euskal Herria altxor bat dela. Denerik dugu inguruan. Oso pozik bizi naiz Atxarte eta Araotz artean. Baina gogoa dut Pakistanera edo Himalayara joateko. Eskaladarako, Yosemitek (AEB) ere asko erakartzen nau.

Oporretan mendira joango zara?

Bai, Pirinioetara. Baina hondartzan ere egon gara. Familian goazenean tartekatuta egiten dugu.

Lauhortza

Ibai Zabala
Gandarias
Irakaslea



Hitzak hiltzen

Nire inguruko guztiei, eta baita zuri ere irakurle, ezkutuko egia bat aitortuko dizuet: inguruan ditudan elkarrizketak entzuten dituen horietakoa naiz, adineko jendeak izan ohi dituenak batez ere. Ezagutzen nautenek pentsatuko dute, “ez da hau sekula barrilapiko bat izan, ba!”, eta ez, belarriak erne izateko daukadan joera hori ez doa ingurukoek zer esaten duten jakitera bideratuta, nola esaten duten entzun eta ikastera baizik.

Euskara egunerokotasuneko hizkuntza bizi hori izate-tik, eskolako edo akademiako hizkuntza besterik ez izatera egiten ari den zorigaitzeko bide honetan, zur eta lur geratuko ginateke belaunaldiz belaunaldi galtzen joan diren hitzen zenbatekoa jakingo bagenu. Eta gertatzen ari den oharkabeko sarraski horretan, gure aitona-amonak dira hitz horien arnasmune bakar. Ez dut gogoko azkenaldian soziolinguistikari horrenbeste erabiltzen den arnasmune hitza, behin Angel Errori irakurri nion lez, hortik kanpokoak itogunea baitirudi. Baina, kasu honetan, egoerari bikain egokitzen zaiola uste dut.

Kirmen Uribek idatzi zuen poema eder batek hala dio: “Hil ziren izenak. Amonak urtxintxa esateko zerabilen katamixar hura adibidez, ardilli esango zioten umeek aurre-rantzean”. Gure eskualde honetan ere non geratu dira alda-pa esateko irripa, gogaikarria dena definitzeko koipelustre, Anbotok izaten duen txapel edo laino hori adierazteko amillena, edo artikulua hau idazteko sua piztu didan mantarreko ume.

Hitzak hiltzen ari gara; bai, gu, eta ez gara horretaz jabetzen.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com